

ERRABAL
J | A | Z | Z

Mikel Andueza

5 Segundoro / Cada 5 segundos

94 PK. 20590 SORALUZE
Tel: +34 943 753 016
Mail: errabal@hotsak.com
www.hotsak.com/Errabal
www.errabaljazz.com

Errabal (ER-078)
2015
CD



Mikel Andueza saxofoi jotzaileak ondutako laugarren diskoa da. Ibilbide luzea eginik eta jazzaren munduan sona handia lorturik, prestakuntza klasikoko nafar hau gaztetandik nabarmendu zen ikasle bikain gisa Nafarroako Pablo Sarasate Kontserbatorio Profesionalean, Madrilgo Goi mailako Kontserbatorioan –garai hartan Espainiako Irrati eta Telebistako Orkestrarekin, Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin eta Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin lan egin zuen– eta geroago Berklee Coll’ge of Music ikastetxean. Azken horretan lehenengo zuzeneko harremanak izan zituen jazzaren munduarekin, eta bere promozio saxofoi jotzaile onenari ematen zaion Performance Award saria lortu zuen. Cum Laude graduatu zen.

Musikagile, moldaketa lanak egile eta interpretatzaile bikaina, esparru askotan garatu du bere ibilbide profesionala, eta eskolak eman ditu Bartzelonako Taller de Musicsen eta Lizeoko Kontserbatorioko Musika Modernoa sailean, baita Madrilgo Sormen Musikaren Ikastetxean ere. Bestalde, tokiko eta nazioarteko artista ugarirekin jardun du elkarlanean, hogeitik gora diskotan parte hartu du, eta lan garrantzitsua egin du irakaskuntzaren eta pedagogiaren esparruetan.

Gure garaiko jazzaren testuinguruan, askotariko kutsuez eta eraginez elikatzen da bere laugarren lana, esate baterako, txaranga doinuak hautematen dira “Zortziko para Mauro” gaian, eta Nafarroako herri doinuak nabari dira Axuri Beltza gaian. Bestalde, diskoari izena emanez, musika garaikidean barneratzen dira edertasuna eta sormena, eta Afrikan bost segundoan behin haur bat goseak hiltzen delako gertaera tragikoaren inguruan gogoeta egitera gonbidatzen gaitu. Lan eklektiko bezain librea da, gaur-gaurko jazz sortzaileenaren bidez zabaldutako bidea erakusten diguna musikari geldigaitz honek berezko duen jakituria lagun.

Lan hau biribiltzeko, euskal jazzaren bi aitzindariren eta aldi berean estatu mailako bi izar handi direnen laguntza jaso du (Gonzalo Tejada kontrabaxu jotzaile donostiarrena, hainbat proiektu partekatu ohi baititu berekin, eta Iñaki Salvador teklatu eta piano jotzailearena), baita agertokietako beste musikari guztiz ezagun batzuen ere, esate baterako, Madrilen bizi den Chris Kase iparramerikarrena (tronpeta eta fliskornoa), Dani Pérez gitarra jotzaile argentinarrarena eta Gonzalo del Val bateria jotzaile kataluniarrarena.

Bere musika-mezu enkriptatuarekin, gure garaiko musikan zko bidaia zoragarria da “Cada 5 segundos” lana, egungo jazzaren osasun bikainaren erakusgarri aparta da.

ERRABAL
J | A | Z | Z

Mikel Andueza

5 Segundoro / Cada 5 segundos

94 PK. 20590 SORALUZE
Tel: +34 943 753 016
Mail: errabal@hotsak.com
www.hotsak.com/Errabal
www.errabaljazz.com

Errabal (ER-078)
2015
CD



Mikel Andueza-ren ibilbide artistikoa eta profesionala ezagutzen dun orok ongi asko daki benetako musikari baten aurrean gaudela. Ikusmen zabala, musika-lurralde pertsonalak irudikatzen duen talentu berezia eta saxofoi jotzaile gisa dituen dohain aparta dira Andueza-ren nortasunaren ezaugarri nagusiak, ez ordea bakarrak: hezitzaile funtsezkoa ere bada Mikel, gazte talentudun asko dauzka ardurapean, eta harremani dagokienez, pertsona hurbila eta atsegina da. Horregatik, aspalditik gertutik jarraitzen dugunontzat, albiste zoragarria da esku artean duzun Mikelen disko berri hau, izan ere, disko berri gehiago kaleratzea nahiko genuke, inolako zalantzarik gabe, bere jarraitzaile askok eta askok.

Cada 5 segundos diskoak jatorrizko zortzi konposizio eta Mikelek berak *Axuri Beltza* doinu tradizionalarekin egindako moldaketa bat biltzen ditu; azken hori Jaurrietako emazteek jaietan interpretatzen eta dantzatzen duten dantza abestua da. Egitura harmoniatsu konplexuak eta baita bihurriak ere sortzeko obsesioaren ondorioz jazzean doinu bikainak sortzeko interesa zenbaitetan apur bat baztertuta dagoelako sentazioa nagusitzen den honetan, bihotza altxatzen du Mikel bezalakoekin topatzeak, oso doinu ederrak ontzeko gai baitira eta konposizioa osotasun baten gisara ulertzen baitute, zeinetan elementu guztiak, doinuak, harmonia eta erritmoa, eskutik hartuta doazen ideia orokor batean barrena. Segur asko horrexegatik, batasunaren sentazioa hautematen dugu, ongi garatutako istorio osoa, Mikel Andueza-ren gaiak entzuten ditugunean, idatzita dagoenak eta bakarkako inprobisazio pasarteek helburu bera baitute: forma ematea ideia bati, usain gozo bati, istorio bati. Zaude ziur hor kanpoan ez dagoela horrelako zerbait lortzeko gai den asko.

Eta hori gutxi balitz, saxofoi jotzaileak disko honetan dituen bidaideen zerrendari erreparatuta, agerian geratzen zaigu Mikelen beste dohain bat, taldekideak ezin hobe aukeratzeko dohaina, hain zuzen. Irudikatzen dut zeinen pizgarria eta atsegina izan behar duen **Iñaki Salvador**, **Dani Pérez**, **Chris Kase**, **Gonzalo Tejada** eta **Gonzalo del Val** bezalako musikariek estudio batean sartzeak, guztiak baitira txapela kentzeko moduko ibilbidea egina duten benetako maisu. Nekez jardungo du talde batek behar bezala taldekideen artean ongi moldatzen ez badira, eta oso esanguratsua da musikari bikain horiek beren baitan duten guztia emateko gai izatea talde zentzuari iskin egin gabe eta Mikelen konposizioak eta ideiak aintzat harturik. Halako prozesuak oso aberasgarriak dira musikarentzat berarentzat sarri askotan, musika betiere baita irabazle zertan ari diren ongi asko dakiten artista talentudunekin. Haiek gabe, ziur naiz disko hau bestelakoa izango zela.

Andueza-ren konposatzeko dohainetara itzulita, hona hemen haiek behar bezala estimatzeko dastatzeko menua. Doinu-garapen luzeak, mugimendu erritmiko pizgarriez lagundurik ez gutxitan, esate baterako *Majito* gaian, Mikel, Chris eta Salvadorren hiru bakarkako pasarte zoragarriez onduan. Sentimenduz beteriko benetako doinu eztanda da *Cada 5 segundos*, bizi garen eroen mundu honetan haurren heriotza-tasa ikaragarri handiak eragindako tragedia izugarriari buruzko gogoeta musikala. Beste batzuetan, esate baterako *Underground* gaian, modu miresgarrian hazten da gaiaren egitura bai dinamikari bai bizitasunari dagokionez. Mikelek eta Dani Pérezek batera eskainitako doinu lerroaren ostean, duoaren erritmoan egiten du aurrera *Ponle letra* gaiak. Inoiz ere behartuak ez diruditen bizitasun uneekin partekatzen dute aretoa doinu lasaiagoek, kontuen berezko ondorio dira.

Izan ere, disko honetan ez duzu topikorik ez eta klixe errazik ere aurkituko. Hemen gu hunkitzeko gai direnek ondutako benetako musika duzu. Zentzu askotan, Mikel Anduezak proposatzen digun bidaia ederra da *Cada 5 segundos*, eta guk atsegin osoz jasotzen dugunonbata. Beraz, bere eginkizun ugariak eta lan profesionalak denbora gutxi uzten diotela badakigun arren, ezin isildu dezakegun zerbait eskatu nahi diogu Mikeli: joan dadila gehiago estudioetara, honakoa bezalako diskoek ase uzten baitzaituzte denboraldi luze baterako.

Mario Benso